

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2018KO EKAINAREN 21EKO SAIO ARRUNTAREN AKTA

Bertaratu direnak:

Juan Antonio Fernández jauna, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusia eta Kontseiluko presidentea, Lehendakariak eskuordetuta.

Sofía Marroquín andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Jesús Losada jauna, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ordezkari.

Jordi Campás jauna, Ogasun eta Ekonomia Sailaren ordezkari.

Irma Basterra andrea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ordezkari.

Zuriñe Elordi andrea, Emakunderen ordezkari.

Ander Añibarro jauna, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ordezkari.

Monika Hernando andrea, Lehendakariaren ordezkari.

Nekane Zeberio andrea, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari.

Ainhoa Gainberri andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari.

Juanma Balerdi jauna, Euskal Fondoaren ordezkari.

Josu Urrutia jauna, Eneko Gerrikabeitia jauna, Eva Silván andrea eta Natalia Rodríguez andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari.

Elsa Fuente andrea, Gorka Urrutia jauna, Dlgone Revilla andrea eta Carlos Askunze jauna, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuen ordezkari.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Kontseiluko presidentek gonbidatuta, Ana Rojo andrea bertaratu da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako aholkulari juridikoa.

Bertaratuko ez direla adierazi dutenak:

Olatz Garamendi andrea, Hezkuntza Sailaren ordezkaria.

Fátima Ansotegi andrea, Osasun Sailaren ordezkaria.

Ana Oregi andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta berdintasunaren Batzordearen ordezkaria.

María Guijarro andrea, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria.

Maite Etxebarria andrea, Eudelen ordezkaria.

Mila Domínguez andrea, Iñigo Eguren jauna, Iñaki Orube jauna, María del Mar Magallón andrea eta Santiago Martínez jauna, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkaria.

Patricia Bárcena andrea eta Joseba Andoni Sainz de Murieta jauna, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuen ordezkaria.

Lekua: Lehendakaritza

Data eta ordua: 2018ko ekainaren 21a, 10:00etan.

Jonan Fernándezek ongi etorria eman die bertaratu direnei, eta hasiera eman dio bilerari, 10:10ean. Aurkezpen laburra egin da eta, ondoren, gai-zerrendarekin hasi dira.

- Aurreko bilerako akta onestea
- Garapenerako Lankidetzaren 2018-2021 aldirako IV. Gida Planaren nahitaezko txostena onestea
- Uraren eta Saneamenduaren arloko Euskadiren eta Erdialdeko Amerikaren arteko Lankidetzarako Erakundeen arteko Programari buruzko informazioa
- Kide anitzeko organoen ebaluazio-proiektuari buruzko informazioa
- Beste batzuk eta galde-eskeak

1. AURREKO BILERAKO AKTA ONESTEA

Bertaratu direnek ez dute aktaren inguruko oharrik egin eta, beraz, aho batez onetsi dute.

2. GARAPENERAKO LANKIDETZAREN 2018-2021 ALDIRAKO IV. GIDA PLANAREN NAHITAEZKO TXOSTENA ONESTEA

Jonan Fernándezek azaldu du GLEAri dagokiola IV. Gida Planaren nahitaezko txostena ematea. Gogorarazi du ekainaren 1ean Kontseiluko kideekin partekatu zela zirriborroa. Ezarritako epea amaituta, hiru ekarpen jaso ziren. Batzorde iraunkorra ekainaren 19an batu zen, eta txosten-proposamena eztabaidatu zuen; hura Kontseiluaren osoko bilkurara ekarri da gaur. Noemí de la Fuentek txosten-proposamena aurkeztu du.

Ana Rojok prozesuaren honako urrats hauen berri eman du: nahitaezko txostena jaso ondoren, GLEAk hura aztertuko du eta egokitzat jotzen ez dituen gaien inguruko memoria prestatuko du. Memoria hori, espediente osoarekin batera, Aurrekontu Zuzendaritzari bidaliko zaio, dagokion txostena eman dezan. Ondoren, espedientea Kontrol Ekonomikoko Bulegora bidaliko da, nahitaezko txostena eman dezan eta, azkenean, Zuzendaritza Kontseiluak plana Gobernu Kontseiluari onesteko ematea proposatuko du. Helburua plana uztailaren 24ko Gobernu Kontseiluan onestea da.

Sofía Marroquínek esan du, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren oharren artean, dokumentuen gaineko hausnarketak egiteko GGKEek ezagutzen ez dituzten elementu batzuk sartzea proposatzen dela. Noemí de la Fuentek esan du txostena publikoa dela, eta helburua ikerketa horren aurkezpen bat egitea dela, dela Kontseiluan bertan, dela beste espazio batzuetan, esaterako, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Jardunaldian. Paul Ortegak Europako esparrua ere kontuan hartzeak nolako garrantzia duen nabarmendu du.

Jonan Fernándezek esan du planaren dokumentuaren zirriborroa behin betikoa dela % 99an, baina beste hiru txostenetan (gaur onesten dena eta aipatu diren beste biak), oraindik aldaketa batzuk egin daitezkeela. Gainera esan du testuan hiru akats zuzendu direla: AUZO(LAN)KIDEAK 3n, deitu ahalko diren eragileen artean Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia sartu da, ez baitzen sartu; AUZO(LAN)KIDEAK 5en, izenburutik *Nazioartekotze* izena kendu da, alderdi horri zenbait ekimen adierazgarri heltzen diotelako eta akatsa eragin dezakeelako; eta, AUZO(LAN)KIDEAK 5en bertan, lehen jardun-ildoak zehaztu da, izan ere, organo hori dagoeneko finkatuta dago eta, beraz, beharrezko ekintza ez delako antolaketa-espazioa finkatzea, baizik eta organo horren bidez koordinazioa zabaltzea.

Jordi Campásek esan du baliabideen atalean *aurrekontu-konpromisoa* terminoaren ordez *aurrekontu-esparrua* erabiltzeko. *Konpromisoak* urte anitzeko aurrekontuen kasuan funtsen erreserbari egiten diolako erreferentzia eta *esparruak* planeko urteetarako aurreikusitako aurrekontuak islatzen dituelako.

Carlos Askunzek parkamena eskatu du, nahitaezko txostenerako ekarpenen prozedura ulertu ez duelako; izan ere, beste organo batzuetan informala da. Esan du, oro har, REAS ados dagoela guztiarekin, baina iradokizun batzuk egin ditu. (i) AUZO(LAN)KIDEAK EROSTERAKOANen, erosketak publiko arduratsuari dagokionean, indarrean dagoen araudia nahitaez bete beharrekoa bada ere, beren iritziz garrantzitsua izango litzateke konpromiso horri garrantzi handiagoa ematea; (ii) AUZO(LAN)KIDEAK horretan bertan, hari lotu dakizkiokeen eragileen artean, Ingurumen Sailaz eta IHOBEn baino ez da hitz egiten, baina, lan handia egin dutela kontuan hartuta ere, ildo beretik aurrera egiten ari diren beste sail, erakunde, sozietate eta organismo autonomo batzuk ere sartzea proposatzen dute, bai eta, zehazki, REAS eta horretan urte asko lanean daramatzaten ekonomia solidarioaren sareak ere.

Zuriñe Elordik esan du Emakundek ez duela beharrezko ikusi txostenik emateko; izan ere, dokumentua bat dator berdintasun-politikekin, estrategia duala jaso du eta VII. Berdintasun Plana jaso du II. eranskinean eta, beraz, ez dute txostenik egiteko beharrezko ikusi. Planaren garapenean inplikatzeko interesa nabarmendu du, duten eskuragarritasunaren eta egin dezakeen ekarpenaren arabera.

Josu Urrutiak, Mundukideri dagokion sektore kooperatiboaren esperientziatik abiatuta, AUZO(LAN)KIDE batzuetan gizarte-ekonomiaren sareak ageri direla esan du, baina, hala ere, AUZO(LAN)KIDEAK 5en enpresa-elkarte edo -sareez hitz egiten dela, eta esan du urteetan zehar kooperatibak ez direla enpresa-elkartetzat jo eta, beraz, berariaz gizarte-ekonomiako enpresak aipatzeko eskatu du.

Hasieran proposatutako dokumentuan osoko bilkuran proposatutako aldaketak sartu dira eta bozkatu egin da. Txostena aho batez onetsi da.

3. URAREN ETA SANEAMENDUAREN ARLOKO EUSKADIREN ETA ERDIALDEKO AMERIKAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO ERAKUNDEEN ARTEKO PROGRAMA

Juanma Balerdik, bertan parte hartzen duten erakundeen izenean, [erakundeen arteko programa](#) aurkeztu du.

Puntu hau amaitzean, Jonan Fernándezek bilera itxi du, prentsaurreko batera joan behar izan baitu, eta Sofía Marroquínek hartu du bere gain bileraren presidentetza.

4. KIDE ANITZEKO ORGANOEN EBALUAZIO PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ana Rojok Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak abian duen [proiektua](#) aurkeztu du. Eta iragarri du organo bakoitzerako egiten ari den analisi-prozesuan galde-sorta bat bidaliko zaiela gizarte-ordezkariei, parte hartzen duten organoaren funtzionamenduari eta lanari buruzko iritzia ezagutzeko. Eusko Jaurlaritzako datuen babesaren ordezkariak aurretiko baimena eskatu du harremanetarako datuak erabiltzeko. Hori dela eta, gutuna bidaliko zaie Kontseiluko Idazkaritzatik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari datuak lagatzeko baimena eskatzeko, horiek galde-sortak bidaltzeko erabil ditzaten.

5. BESTE BATZUK ETA GALDE-ESKEAK

Paul Ortegak iragarri du ekainaren 19ko batzorde iraunkorrean azken lauhilekoan urtearen amaieran aztertu beharreko gai guztiak aztertzeko bi bilera egiteko beharra egoteko aukera planteatu zela.

Eta aztertzeko beste gairik egon ez denez, osoko bilkura 11:09an amaitutzat jo da.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

**JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ
ERDOCIA**

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO
PRESIDENTEA**